



KUDEAKETA KOMERTZIALEKO PLATAFORMA ALDATZEKO HAINBAT APLIKAZIOREN AZTERKETA FUNTZIONALEAN LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTEA: 3163

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☐ Irekia ☒ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Unai Lerma Mentxaka
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: KUDEAKETA KOMERTZIALEKO PLATAFORMA ALDATZEKO HAINBAT APLIKAZIOREN AZTERKETA FUNTZIONALERAKO LAGUNTZA TEKNIKOA
2.- Zer beharri erantzun behar zaizen: Bermatzea, batetik, kudeaketa komertzialeko tresna berriaren (BONE) ezarpenak behar bezala funtzionatzen duela eta, bestetik, hura behar bezala integratzen dela programa informatikoekin —bezeroen irakurketak bide telematikotik (irratimaiztasun bidezko komunikazioko Lora sarea) lortzeko prozesua ixteko zereginak modu automatizatuan egiten dituzte—.
3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Iritzia eman eta geruzak, programak edo azpiprozesuak zer modutan funtzionatu behar duen azaltzeko laguntza eskaintzeko ardura ezin da balizko adjudikaziodun ezberdinen artean banatu; horrek teleirakurketako informazioa eskuratzeko prozesuak, bere osotasunean, ondo funtzionatzea arriskuan jar dezake.
4.- CPV: CPV kodea:71356200-0 Deskribapena:Laguntza teknikorako zerbitzuak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria



B.- KONTRATUAREN XEDEA

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)

**HIRUROGEITA BOST MILA BERREHUN ETA
LAUROGEI (65.280,00) EURO**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 65.280,00 euro

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

2025. urtea: 9250122799 65.280,00 euro gehi BEZa.

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileroko ziurtagiria (hilabete bakoitzean garatutako ordu kopurua).

8.- Konturako ordainketak: Ez.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa

Sei hilabete, baina kontratuaren indarraldia, gehienez, 2025eko abenduaren 31ra artekoa izango da; egun horretan gure SIGA ordezkatzeko duen prozesu komertziala kudeatzeko plataforma edo aplikazio informatiko berria merkaturatzea aurreikusten da.

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: Ez da aplikagarria

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Ur Partzuergoaren instalazioak

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena —aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea— kontratuaren balio zenbatetsia halako bat izan beharko da gutxienez.

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken hiru urteotan antzeko zerbitzuetan egindako lan nagusien zerrenda. Organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako lanak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada. Hartzailea subjektu pribatu bat bada, subjektu horrek emandako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren adierazpen bat. Horretarako, gutxieneko betekizuna izango da bolumenik handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoak:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena eta Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

2.- 2. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK

Gehieneko orri kopuru onargarria 10 izango da, ezaugarri hauekin:

- DIN-A4 tamaina.
- Letra mota eta letraren gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.

Gehieneko orri kopurua zenbatzeko, aurkibidea 10 orri horien barruan kontabilizatuko da. Ez dira zenbatuko azala eta kontrazala.

Lehendabiziko 10 orrietatik aurrerako orriak ez dira kontuan izango.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.
- b) Kontratuaren aurrekontua.



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAREN 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria/Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak (Titularrak/Ordezkoa):
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 75 PUNTU

Irizpide honetan 75 puntu emango dira gehienez.

Horretarako, ondoren azaldutako formula matematikoak erabiliko dira, eta haien emaitza K_1 koefizienteaz biderkatuko da, zeina honako hau den:

$$K_1 = 75 / 50$$

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honako balio hauek esleituko dituzten formula matematikoen bidez:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + BBB) / 2$	48 puntu
BBB	47 puntu
$0,8 \times BBB$	46 puntu
$0,6 \times BBB$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Puntu hauetako balioak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

Non:

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta. Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Formula hauen bidez lortuta Pi puntuazioaren emaitza guztiak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK 25 PUNTU

Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia.....8 puntu

- Lanak egiteko metodologia eta planteatutako premia ebazteko zer eraginkortasun duen.
- Metodologia BBUPen inguruabar eta ezaugarri berrietara egokitzeko aukera eta bere malgutasuna

Kontraturako eskuragarri jarritako bitarteko teknikoak.....17 puntu

Zeregin teknikotan arituko diren langileek preskripzio teknikoen agiriarekin eta kontratua egikaritzen den bitartean ezarritako betekizunekin bat etorriz eskatzen den gutxieneko esperientzia gainditzea baloratuko da.

Teknikariek kontagailu eta irrati-irakurketako modulu hauekin (40.000 unitatetik gora) duten esperientzia baloratuko da:

- -Honeywell S-220 eta RF Merlin HB-G3 modulua
- -Itrón Aquadis eta RF Cyble 5 modulua
- -Diehl Altair V4 eta RF HRL c-G3 modulua

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **12 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHAZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI

☒ EZ



BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Laguntza profesionala behar da eta laguntza profesional horrek aditua izan behar du datu-base erlazional eta ez-erlazionalekin lotutako aplikazioen (mahaigainekoak, web-aplikazioak eta mugikortasunekoak) diseinu, analisi eta funtzionaltasunean, dela ingurune zentralizatuetan dela ingurune banatuetan.

Ondorioz, laguntza teknikoaren zerbitzua ematera bideratutako aholkulariek honako profil hau izango dute:

- Informatika-ingeniaritzako goi-mailako gradua, eta hamar urtetik gorako esperientzia proiektu-kudeaketan eta scrum metodologiaren aplikazioan.
- Hiru urteko gutxieneko esperientzia *utility*etarako proiektuetan, eta berariazko esperientzia *utility*aren arloko kudeaketa komertzialeko sistemak garatzen edo ezartzen.
- Hiru hilabeteko gutxieneko esperientzia teleirakurketa-kontagailuen instalazioa kudeatzen eta ekipamendu horietako informazioa datu-baseetara gaineratzen (irakurketa-indizeak eta ordu-maiztasunak barne).

Aldi berean, Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoarekin bat etorriz, eskatzen da laguntza teknikorako zerbitzuak gutxienez astean behin egitea Ur Partzuergoaren bulegoetan bertan (Bilboko Albia eraikinean daude).

Betebehar horiek funtsezko kontratu-betebeharraren izaera dute. Beraz, horiek betetzen ez badira, emandako bermeak edota abalak erabili ahal izango dira, Ur Partzuergoaren irizpide eskusiboaren arabera egoera hori justifikatu dezakeen arrazoiren bat izan ezean.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresak BBUPEkin hitz egiteko pertsona bat izendatu beharko du, Bezeroekiko Harremanen Sailarekin, hornitutako kontagailuetatik edota horien funtzionamendu okerretik erator daitezkeen arazoak ebazteko, eguneroko harremana mantentzeko xedez.